

## GAIXOTASUNEAN GAIXO

Barrunbeak oihuka. Hotza, beroa. Zein da eskuma, zein da ezkerra? Izerditan daude logelako paretak. Erlojua garrasika dabil berriro. Gaueko hirurak dira eta buruak eztanda egingo balu bezala dabil bueltaka.

Non dago udaberria? Zein da Sabinari lapurtu zioten hila?

Aurten ez ditut loreak sentitu eta ez dut askatasunaren haizea arnastu. Ezinegonaren haziak landatu dira nire gorputzean, arnastea zailtzen dizkidatenak. Eta oraindik ez dakit nor den erruduna.

Dena bukatzen denean, nork oroituko gaitu? Itzuliko dira euliak abuztuko sargoriagaz, berpiztuko dira hasieran izan ginenaren errautsak? 2 hilabete pasa dira neure buruaren jabe bakarra naizela konturatu nintzenetik, hutsik ta bakardadean bihotza malkoz bete zitzaidanetik.

Poesia liburuen artean ezkututzen diren metafora zaharretan saiatu naiz erraietako oldar gazia baretzen, baina paretak lainotzen dizkidate begiak berriro. Erich Fromm agertzen zait noizbehinka liburu maitatien artean, eta berriz errudun naiz sentiarazten.

Denbora tarte honi izena bilatu nahian igaro zaizkit asteak, emankorra den ezeri eutsi ezinean. Batzuetan ahaztu egiten zait itsasoaren usaina; orduan irekitzen dut itxaropen haustuen leihoa eta altzarrik hasten naiz amesten. Lapurtu dizkidaten loreak eta biziko ez dudan udaberriaren hauspoak agertzen zaizkit ametsetan, sutondoko kondairek sentiarazitako urruntasunaren antzera.

Gaixotasun ezezagun batek berrogeialdi arrotz batean murgildu gaitu, ezin ezer ulertu, ezin errealitate lauso hau onartu. Gure etxeko ateko zirrikitutik sartu zaizkigu guri ere minantz arraro honen aurriak, teleberriak zalantza eta beldur ziztrinak barreiatzen dituen bitartean. Sorterria bera gartzela bilakatzen denean, nora egingo dut ihes ezintasunaren nihilismo itsuan

erortzen naizen bakoitzean? Nork salbatuko nau? Nork lehortuko dizkit pixkanaka itotzen nauten malko hotz hauek?

Maiz entzun dut danak ontzi berdinean gaudela, danok batera borrokatuz krisialdi hau gaindituko dugula... baina benetan gaude ontzi berdinean, ala itsaso berean? Agian itsaso handi honetan yate pribatu erraldoietan nabigatzen duten familiak daude, beste familia batzuk nekez enbor hautsi batean bizirauten duten bitartean... Ez dakit. Zenbat pentsamendu sortu zaizkit mundua lo dagoen bitartean... Agian ohiturak ito egin nau jadanik, baina aspaldi nabil lo egin ezinik.

Oraindik nabil erantzunen bila, erlojuari begira... Gaueko hirurak dira eta oraindik ez dut aurkitu zuhaitzen hostoekin batera hazitako ametsen esku-zikina.

*Egilea: Argha*